

## AURKIBIDEA

Euskal Autonomia Erkidegoko turismoaren kontu satelitea .....	2
1 Turismoaren pisua EAEko ekonomian .....	2
<b>Turismoaren eta EAEko ekonomiaren bilakaera konparatua. ....</b>	<b>3</b>
2 Turismo-fluxuen saldoa Euskal Autonomia Erkidegoan .....	4
3 Turismoaren guztirako ondorioak EAEko ekonomian .....	5
4 Turismo-gastua, lurralde historikoaren arabera .....	6
5 EAEko turismo-industriaren ezaugarriak .....	7

# Euskal Autonomia Erkidegoko turismoaren kontu satelitea

## Emaidza nagusiak, 2013-2016(a)

### 1 Turismoaren pisua EAEko ekonomian

2016. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-gastua EAEko BPGaren % 6,1 izan zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-gastua etengabe handitu zen 2013-2016 aldian, eta 2016. urtean 4.299 milioi euro izatera iritsi zen; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko BPGaren % 6,1. Balio horien barruan ez dago sartuta EAEko egoiliarrek EAetik kanpo egindako gastua, baizik soilik erkidegoaren jarduera ekonomikoari eragiten diona.

Turismo-gastuak bi osagai ditu: batetik, turismo hartzailearen gastua, eta, bestetik, turismoaren beste osagai batzuk.

Kategoria horietatik lehenak Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-gastu osoaren % 51,5 egin zuen, eta han sartuta daude ez-egoiliarrek EAEn egindako gastuak. Hain zuzen ere, kategoria horixe izan zen dinamikoena 2013tik 2016ra bitartean, urteko % 5,3ko erritmoan handitu baitzen. Aldi horretan, 2010-2013 aldian ez bezala, turismoaren beste osagaiak ere nabarmen hazi ziren.

### 1. taula. Turismoak EAEko ekonomiari egindako ekarpena. Balioa (mila eurotan) eta BPGaren gaineko ehunekoa. 2013-2016(a).

	2013	2014	2015	2016(a)
<b>Turismo-gastua, guztira</b>	<b>3.803.144</b>	<b>3.921.201</b>	<b>4.119.211</b>	<b>4.299.288</b>
Turismo hartzailea	1.898.298	1.988.273	2.097.648	2.213.667
Turismoaren beste osagai batzuk	1.904.846	1.932.928	2.021.563	2.085.621
<b>Turismo-gastua, guztira (%)</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Turismo hartzailea	49,9	50,7	50,9	51,5
Turismoaren beste osagai batzuk	50,1	49,3	49,1	48,5
<b>BPG mp-aren gaineko ehunekoa</b>				
<b>Turismo-gastua, guztira</b>	<b>5,8</b>	<b>5,9</b>	<b>6,0</b>	<b>6,1</b>
Turismo hartzailea	2,9	3,0	3,0	3,1
Turismoaren beste osagai batzuk	2,9	2,9	3,0	3,0

Iturria: EUSTAT. Turismoaren kontu satelitea.

Oinarria: 2015

(a): aurrerapena.

“Turismoaren beste osagai batzuk” kategoriaren barruan, berriz, hauek daude sartuta: EAEko egoiliarrek Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan turismoa egitean gastatutako diru kopurua; EAEko administrazio publikoek turismoa programetan gastatutakoa, eta turismoaren berezko adarretan aritzen diren enpresen kapital-eraketa gordina. 2016an, halako gastuek 2.085 milioi euro egin zuten; hots, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako turismo-gastuaren % 48,5 izan ziren.

Atzerritik datozen bisitari gehienak txangolariak dira. Atzerriko txangolaritzat hartzen dira muga zeharkatzen duten bisitariak; batez ere produktuak edo zerbitzu pertsonalak eskuratzeko etortzen direnak, baina ez dutenak gaurik igarotzen erkidegoaren lurraldean. Euskadiren kokagune geografikoa dela eta, ugariak dira mota horretako joan-etorriak, bereziki Donostialdea-Txingudi igarobidean. Hain zuzen ere, 2016an, halakoak izan ziren beste herrialde batzuetako egoiliarrek Euskal Autonomia Erkidegora egindako bisiten % 77,2. Gainerako % 23a turistak izan ziren; alegia, gutxienez gau bat erkidegoan igaro zuten bidaiariak. Talde hori txangolariena baino erritmo biziagoan hazi zen.


### **Turismoaren eta EAEko ekonomiaren bilakaera konparatua.**

*Azken urteetan, ekonomia-krisiak eragin txikiagoa izan zuen turismo-gastuan BPGan baino, eta, beraz, handitu egin zen turismoaren pisua EAEko ekonomian.*

2011tik 2013ra arteko urteak ez ziren samurrak izan EAEko ekonomiarentzat. 2009ko ekonomia-atzeraldien ondoren, krisia nazioartean gogor jotzen ari zela, bazirudien EAEko ekonomiak hazkundearen bidea hartu zuela 2010ean. Aitzitik, 2011n BPGaren hazkundera oso txikia izan zen, eta 2012an eta 2013an balio negatiboak izan zituen berriro. 2014tik 2016ra, BPGa gelditu gabe hazi zen.

Egoera ekonomiko txarrak jarduera turistikoan ere eragina izan zuen. Nolanahi ere, EAEko turismo-gastuak ekonomiak berak baino bilakaera hobea izan zuen aldi osoan. Izan ere, turismo-gastua etenik gabe hazi zen 2010etik 2013ra bitartean, eta, horri esker, harekin zuzen-zuzenean lotutako jarduera-adarrei eutsi ahal izan zitzaizkien. Ondorioz, turismoak EAEko ekonomian izandako pisua % 5,4 izatetik (2010) % 5,8 izatera (2013) pasatu zen. 2013-2016 aldian ere turismoaren hazkundera aldekoa izaten jarraitu zuen. Turismoaren pisua % 3,1 hazi zen 2014an; 2015ean, % 5, eta 2016an % 4,4; bestera esanda, BPGaren gainera hazi zen. Izan ere, azken urteetan, BPGak % 3,2 eta % 3,4 egin zuen gora.

### 1. grafikoa. Turismo-gastuaren eta BPGaren hazkunde-tasak. Euskal Autonomia Erkidegoa, 2013-2016



Iturria: EUSTAT. Turismoaren kontu satelitea eta ekonomia-kontuak.

Oinarria: 2015

(a): aurrerapena.

## 2 Turismo-fluxuen saldoa Euskal Autonomia Erkidegoan

*Autonomia-erkidegoaren turismo-saldoa negatiboa da estrukturalki.*

Euskal Autonomia Erkidegoak gero eta turista gehiago erakartzen dituen arren, EAEko ekonomiaren egitura ez dago turismora bideratuta, Estatuako beste eskualde batzuetako edo munduko beste leku batzuetako ekonomiekin alderatzen badugu. Gainera, erkidegoaren oparotasun ekonomikoa handi samarra denez, bertako biztanleek beren errentaren zati handiago bat erabil dezakete turismo-zerbitzuak eskuratzeko. Horrek guztiak azaltzen du zergatik den EAEko turismo-saldoa estrukturalki negatiboa. 2016ko saldoa ere negatiboa izan zen: -2.325 milioi euro; BPGaren % 3,3.

## TURISMOAREN KONTU SATELITEA 2013-2016(a)

**2. taula. Euskal Autonomia Erkidegoaren munduko gainerako tokietarako turismo-fluxuen saldoa, osagaiaren eta urtearen arabera. Balio absolutua (mila eurotan) eta BPG mp-aren gaineko ehunekoa. Prezio korrontekak. 2013-2016(a).**

	2013	2014	2015	2016(a)
Turismo hartzailea	1.898.298	1.988.273	2.097.648	2.213.667
Turismo igorlea	4.081.294	4.154.246	4.294.888	4.538.521
<b>Turismo-saldoa</b>	<b>-2.182.996</b>	<b>-2.165.973</b>	<b>-2.197.240</b>	<b>-2.324.854</b>
<b>BPG mp-aren gaineko ehunekoa</b>				
Turismo hartzailea	2,9	3,0	3,0	3,1
Turismo igorlea	6,3	6,3	6,3	6,4
<b>Turismo-saldoa</b>	<b>-3,4</b>	<b>-3,3</b>	<b>-3,3</b>	<b>-3,3</b>

Iturria: EUSTAT. Turismoaren kontu satelitea.

Oinarria: 2015

(a): aurrerapena

### 3 Turismoaren guztirako ondorioak EAEko ekonomian

*Jarduera turistikoak Euskal Autonomia Erkidegoaren esportazioen % 5 egin zuen, eta 46.436 lanpostu sortu zituen.*

Turismoak lurraldeetan izaten dituen ondorioak ez dira mugatzen turismo-industriak sortzen dituen zerbitzuetara. Aitzitik, jarduera turistikoak arraste-efektua izaten du ekonomia osoan; izan ere, jarduera turistikoek gainerako ekoizpen-adarrei ondasunak eta zerbitzuak eskatzen dizkiete. Eskariari erantzuten dioten adarrek, berriz, beste adar batzuei eskatzen dizkiete produktuak eta zerbitzuak, eta, hortaz, ondorio ekonomikoak errepikatu egiten dira. Turismoak ekonomian dituen "guztirako ondorioak" aipatzen direnean, ondorioen errepikapen horiek kontuan hartzen dira, eta kalkulatu da turismoak zer-nolako eragina duen herrialdearen edo eskualdearen oinarritzko ekonomia-magnitudeetan.

Euskal Autonomia Erkidegoan, turismoaren garrantzia ez da tradizio turistiko handiagoa duten beste eskualde batzuetan bezainbestekoa (Andaluzia edo Kanariak, adibidez), ez eta Estatu osoan duen garrantziaren parekoa ere, non, 2015ean, turismo-gastuak BPGaren % 10,9 egin baitzuen. Hala ere, jarduera turistikoa gero eta garrantzitsuagoa da EAEko ekonomiarentzat; 2015ean, % 6 izan zen.

Urte horretan, EAEko familia egoiliarrek 2.359 milioi euro gastatu zituzten turismo-produktuak eta -zerbitzuak eskuratzen, eta horrek azken kontsumoko gastuari dagokionez % 5,6 egiten du; hots, 1.086 euroko gastua biztanleko.

Esportazioetan ere eragin handia izan ohi dute jarduera turistikoek; batik bat, tradizio turistikoa duten herrialde eta eskualde txikietan, zeinen kokalekuak errazten baitu beste herrialde edo eskualde batzuetako turistak hara joatea. Nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoak baldintza guzti horiek ez bete, 2015eko esportazio guztien % 5a jarduera turistikoak eragin zuen.

Urte horretan, turismoari esker, 46.436 lanpostu sortu ziren EAEn; hau da, erkidegoko enplegu-bolumen osoaren % 4,6.

## TURISMOAREN KONTU SATELITEA 2013-2016(a)

**3. taula. Turismoak ekonomiari egindako ekarpena: guztirako ondorioak, oinarritzko zenbait magnituderi dagokienez. 2015**

	Guztirako ondorioak	Guztizkoaren gaineko %
<b>Merkatuko prezioko BPGari egindako ekarpena, eskariaren arabera</b>	<b>4.119</b>	<b>6,0</b>
Familia egoiliarren azken kontsumoko gastua	2.359	5,6
Familien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeen/Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua	44	0,4
Kapital-eraketa gordina	200	1,2
Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak	2.243	5,0
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak	727	1,6
<b>Merkatuko prezioko BPGari egindako ekarpena, eskaintzaren arabera</b>	<b>4.119</b>	<b>6,0</b>
Oinarritzko prezioko BEGd-a	3.724	6,0
Produktuen gaineko zergak	395	6,0
ekoizpena	5.826	4,4
Enplegua (lanpostuak)	46.436	4,6

Iturria: EUSTAT. Turismoaren kontu satelitea.  
Oinarria: 2015

## 4 Turismo-gastua, lurralde historikoaren arabera

*Bizkaiko turismo-gastuaren bolumena Gipuzkoakoa baino handiagoa izanagatik, oraindik ere turismoak pisu handiagoa du Gipuzkoan.*

Tradizioz, Euskal Autonomia Erkidegoaren jarduera turistikoa Gipuzkoako hiriburuan eta kostaldean bildu izan da. Bilbora, berriz, negozio-turismoa heldu izan da nagusiki, eta, beraz, hango turismo-azpiegitura ez da hainbeste garatu.

Duela gutxi, ordea, Bilboren hirigintza-eraldaketak eta Loiuko nazioarteko aireportuaren aireko trafikoaren hazkundeak bultzatuta, Bizkaiko lurralde historikoaren jarduera turistikoa dinamizatu egin da. 2006. urtetik, turismo-eskaria, balio absolututan neurtuta, handiagoa da Bizkaian Gipuzkoan baino. Bizkaiko lurralde historikoak Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-gastuan duen pisua handituz doa, eta 2016an % 44,3 izan zen.

Nahiz eta horixe izan joera, Gipuzkoako hiriburua eta kostaldea aspalditik dira helmuga turistiko, eta hori nabaritu egiten da oraindik: turismoak pisu handia du lurralde historiko horren ekonomian. 2016an, Gipuzkoako turismo-gastuak BPGaren % 7,7 egin zuen; Bizkaikoak, aldiz, % 5,3 (inoiz izan duen handiena), eta Arabakoak % 5,2. Azkeneko urtean, turismo-gastua % 2,8 handitu zen Araban, % 4,4 Bizkaian eta % 4,9 Gipuzkoan; beraz, Gipuzkoakoa izan zen igoerarik handiena (Donostiaren Europako Hiriburutzarekin batera gertatu zen hori).

## TURISMOAREN KONTU SATELITEA 2013-2016(a)

**4. taula.** Turismoak EAEko ekonomiari egindako ekarpena, lurralde historikoaren eta urtearen arabera. Balio absolutua (mila eurotan) eta BPG mp-aren gaineko ehunekoa. Prezio korrronteak. 2013-2016(a).

	2013	2014	2015	2016(a)
<b>Turismo-gastua</b>				
<b>Euskal Autonomia Erkidegoa</b>	<b>3.803.144</b>	<b>3.921.201</b>	<b>4.119.211</b>	<b>4.299.288</b>
Araba	551.456	563.089	579.464	595.708
Bizkaia	1.680.990	1.724.166	1.823.481	1.903.694
Gipuzkoa	1.570.698	1.633.946	1.716.266	1.799.886
<b>Turismo-gastua (%)</b>				
<b>Euskal Autonomia Erkidegoa</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Araba	14,5	14,3	14,1	13,8
Bizkaia	44,2	44,0	44,2	44,3
Gipuzkoa	41,3	41,7	41,7	41,9
<b>BPG mp-aren gaineko ehunekoa</b>				
<b>Euskal Autonomia Erkidegoa</b>	<b>5,8</b>	<b>5,9</b>	<b>6,0</b>	<b>6,1</b>
Araba	5,2	5,2	5,2	5,2
Bizkaia	5,1	5,1	5,3	5,3
Gipuzkoa	7,3	7,4	7,6	7,7

Iturria: EUSTAT. Turismoaren kontu satelitea.

Oinarria: 2015

(a): aurrerapena.

## 5 EAEko turismo-industriaren ezaugarriak

*Turismoaren berezko adarrek 3.100 milioi euroren turismo-zerbitzuak sorrarazi zituzten 2015. urtean.*

Turistek kontsumitzen dituzten ondasunak eta zerbitzuak jarduera-adar jakin batzuek ekoizten dituzte, eta horiei turismoaren berezko adar esaten zaie. Turismo-industria horren barruan, establezimendu hauek daude: turisten ostatu- eta janari-beharrei erantzuten dietenak (hotelak, jatetxeak, tabernak, kafetegiak...); turistei garraiobideak eskaintzen edo errazten dizkietenak (hainbat modalitatetako bidaiarien garraioa, ibilgailu-alokairua, garraioari lotutako zerbitzuak...); turistak entretenitzeko zerbitzuak ekoizten dituztenak (aisialdiko jarduerak eta kultura-jarduerak), eta zerbitzu horiek guztiak eskuratzeko bitartekari-lanetan aritzen direnak (bidaia-agentziak).

Begi-bistakoa da, ordea, badirela beste industria batzuk, turistek bidaian dauden bitartean egiten dituzten eskariei erantzuten dietenak. Halakoei turismoaren adar ez-berezko esaten zaie, eta haien ekoizpena ere kontuan hartzen da turismoaren kontu satelitean, baldin eta ekoizkinen kontsumitzaileak turistak badira.

Turismoaren berezko adarrak dira, zinez, turistek kontsumitzen dituzten produktu eta zerbitzuen ekoizle nagusiak. 2015ean, 3.100 milioi euroren ekoizpena izan zuten: ekoizpen osoaren % 76,8. Kuantitatiboki begiratuta, adar garrantzitsuenak bidaiarien ostatu- eta janari-beharrak estaltzen dituztenak dira. Hotel-establezimenduek turismo-produktu eta -zerbitzuen balioaren % 23,1 ekoiztu zuten urte horretan, eta ehuneko berdintsua lortu zuten jatetxeek eta antzeko establezimenduek. Bidaia-agentziak ere turismo-zerbitzuen ekoizle nagusienetako bat dira: 278 milioi euro sortu zituzten 2015ean; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpen turistikoaren % 6,9. Oro har hartuta, bidaiariak garraiatzeko zerbitzuak

**TURISMOAREN KONTU SATELITEA 2013-2016(a)**

eskaintzen dituzten establezimenduek 376 milioi euro sortu zituzten; alegia, % 9,3 —kontuan hartu behar da salgaiak garraiatzen dituztenak ez direla sartzen turismo-sektorean, turismoaren kontu sateliteari dagokionez—.

**5. taula. Turismoaren berezko adarren ekoizpen turistikoa eta ez-turistikoa Euskal Autonomia Erkidegoan, 2015ean.**

Jarduera-adarra	Guztirako ekoizpena	Ekoizpen turistikoa		Ekoizpen ez-turistikoa	
		Mila euro	%	Mila euro	%
Turismoaren berezko adarrak	20.710.184	3.099.869	15,0	17.610.315	85,0
Hotelak eta antzekoak	1.018.982	<b>932.890</b>	91,6	86.092	8,4
Higiezinak alokatzeko zerbitzuak	8.073.808	265.760	3,3	7.808.048	96,7
Jatetxeak eta antzekoak	5.361.641	<b>975.047</b>	18,2	4.386.594	81,8
Bidaiarien lurreko garraioa	825.850	179.452	21,7	646.398	78,3
Bidaiarien trenbide-garraioa	300.729	42.956	14,3	257.773	85,7
Bidaiarien itsas garraioa	22.836	22.836	100,0	0	0,0
Bidaiarien aireko garraioa	140.613	130.957	93,1	9.656	6,9
Bidaia-agentziak	653.707	<b>278.204</b>	42,6	375.503	57,4
Garraioari lotutako beste zerbitzu batzuk	2.604.937	131.776	5,1	2.473.161	94,9
Ibilgailu-alokairua	91.506	32.027	35,0	59.479	65,0
Aisialdiko jarduerak eta kultura-jarduerak	1.615.575	107.964	6,7	1.507.611	93,3
<b>Turismoaren adar ez-berezkoak</b>	<b>113.096.376</b>	<b>936.449</b>	<b>0,8</b>	<b>112.159.927</b>	<b>99,2</b>
<b>Guztira</b>	<b>133.806.560</b>	<b>4.036.318</b>	<b>3,0</b>	<b>129.770.242</b>	<b>97,0</b>

Iturria: EUSTAT. Turismoaren kontu satelitea.

Turismo-adar garrantzitsuenek produktu sorta zabala ekoizten dute; gehien bat, turismoaren berezko produktuak. Esaterako, hotel-establezimenduen adarrak 2010ean izan zuen ekoizpenaren % 85,4 hotelen eta antzekoen zerbitzu berekiek osatu zuten. Horrez gainera, establezimendu horiek otordu-zerbitzuak ere sortu zituzten, beren ekoizpenaren % 12,2 egiteraino.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegora etorritako turistek 2015ean eskuratu zituzten ondasun eta zerbitzuen zati handi bat (%23,2) turismoaren adar ez-berezkoek ekoiztu zuten. Adar horien ekoizpen turistikoa, batez ere, turismoaren ondasun ez-berezkoak hartzen ditu, bidaiariek bidaiari dauden bitartean eskuratzen dituztenak. Horren barruan sartuta dago espresuki erosketak egitera datozen turistek eskuratzen dutenaren balioa. Turismoaren adar ez-berezkotzat jotzen dira, halaber, EAEko administrazio publikoak, zeinen ekoizpenaren zati bat nagusiki turistentzako zerbitzuei zuzendua baitago. Administrazio publikoek 43,6 milioi euroren gastua egin zuten halako zerbitzuetan.



## TURISMOAREN KONTU SATELITEA 2013-2016(a)

**Turismoaren berezko adarretan aritzen diren enpresa gehienak ETEak dira.**

Turismoaren berezko adarretako establezimendu gehienak ostalaritza-sektorekoak dira — zehazki, jatetxeak eta antzekoak—; gero, aisialdiko jarduerak eta kultura-jarduerak eskaintzen dituzten adarrak daude, baita higiezinak alokatzeko zerbitzuak eta lurreko garraioaren zerbitzuak eskaintzen duten establezimenduak ere. Adar guztietan, establezimendu txikiak dira ohikoenak. Jatetxe eta antzekoen adarrari dagokionez, soilik halakoen % 0,18k zituen 50 langile baino gehiago 2016. urtean. Horrek erakusten du sektorea atomizatuta dagoela, eta eskaintza gastronomiko kalitatezkoa eta pertsonalizatua egiten duela.

**6. taula. Turismo-industria: establezimendu kopuruaren banaketa, langile eta lanpostu kopuruaren arabera. 2016(a)**

	Enpleguaren estratuak						GUZTIRA
	3 baino gutxiago	3-5	6-9	10-14	15-49	50 baino gehiago	
Hotelak eta antzekoak	735	151	89	71	59	15	1.120
Higiezinak alokatzeko zerbitzuak	2.720	272	38	11	4	2	3.047
Jatetxeak eta antzekoak	7.604	3.298	1.135	600	170	23	12.830
Trenbide-garraioa	34	19	9	4	7	6	79
Lurreko garraioa	2.234	67	47	44	36	22	2.450
Itsas garraioa	9	5	0	2	1	3	20
Aireko garraioa	4	2	2	2	2	2	14
Bidaia-agentziak	490	170	27	15	9	0	711
Garraioari lotutako beste zerbitzu batzuk	551	215	152	97	68	36	1.119
Ibilgailu-alokairua	76	21	12	5	1	0	115
Aisialdiko jarduerak eta kultura-jarduerak	2.923	507	176	153	115	41	3.915
<b>Jarduera turistikoak, guztira (establezimendu kopurua)</b>	<b>17.380</b>	<b>4.727</b>	<b>1.687</b>	<b>1.004</b>	<b>472</b>	<b>150</b>	<b>25.420</b>
<b>Jarduera turistikoak, guztira (banaketa, %)</b>	<b>68,4</b>	<b>18,6</b>	<b>6,6</b>	<b>3,9</b>	<b>1,9</b>	<b>0,6</b>	<b>100,0</b>
<b>Jarduera ez-turistikoak, guztira (establezimendu kopurua)</b>	<b>112.512</b>	<b>18.979</b>	<b>7.051</b>	<b>5.368</b>	<b>3.828</b>	<b>2.235</b>	<b>149.973</b>
<b>Jarduera ez-turistikoak, guztira (banaketa, %)</b>	<b>75,0</b>	<b>12,7</b>	<b>4,7</b>	<b>3,6</b>	<b>2,6</b>	<b>1,5</b>	<b>100,0</b>
<b>Jarduerak, guztira (establezimendu kopurua)</b>	<b>129.892</b>	<b>23.706</b>	<b>8.738</b>	<b>6.372</b>	<b>4.300</b>	<b>2.385</b>	<b>175.393</b>
<b>Jarduerak, guztira (banaketa, %)</b>	<b>74,1</b>	<b>13,5</b>	<b>5,0</b>	<b>3,6</b>	<b>2,5</b>	<b>1,4</b>	<b>100,0</b>

Iturria: DIRAE, Eustat.

Establezimendu gehien duten adarren ezaugarri hori bera ikus daiteke, orobat, turismo-sektore osoan, non, 2016an, establezimenduen % 0,6k soilik zituen 50 langile baino

gehiago. Oro har esan genezake EAEko turismo-sektorea oraindik ezberdina dela herrialdeko beste eskualde batzuetako sektorearekin alderatuta; izan ere, EAetik kanpoko zenbait eskualdetan, hemen ez bezala, jendetza-turismoak berekin ekarri du enpresa eta establezimendu handiak irekitzea.